

2016KO MARTXOAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.
ARETOA: Batzar Aretoa.
EGUNA: Hogeita bia.
HILABETEA: Martxoa.
URTEA: Bi mila eta hamaseia.
HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak laurden gutxi.
BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa
DEIALDIA: Lehena
OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)
MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde
Malu Valles Fernandez
Koldo Agirre Mujika
Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal
Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko otsailaren 25eko akta onartzea.

2016ko otsailaren 25eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. ESLEIPENA:

- Hirigintza arloan asistentzia teknikoa.

Ezagutzera eman da 2016ko martxoaren 3ko Kontratazio Mahaiaren proposamena, hau da:

AURREKARIAK

1.- 2016-01-07. Gobernu Batzordeko erabakia, aipatutako zerbitzua prozedura irekiaren bidez eta deialdi publikoa eginez kontratatzeko eta baldintza plegua onartzeko.

2.- 2016-01-14. Deialdia GAOean argitaratzea.

3.- 2016-01-29. Proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

4.- Epe barruan eta epez kanpo aurkeztutako lizitatzailleak:

LIZITATZAILEAK	SARRERA		EPEA
	Erregistroa	Data	
ARKIGEST ESTUDIOA, S.L.	377	2016/01/28	Epe barruan
UTE HIRITU	384	2016/01/28	Epe barruan
OLARTE BIDAURRAZAGA, AITZIBER	399	2016/01/29	Epe barruan

BATARRITA AGUIRRECHE, ARGIA	400	2016/01/29	Epe barruan
JAUREGI LARRAÑAGA, AITOR	403	2016/01/29	Epe barruan
BARANDIARAN CONTRERAS, NIKOLAS	406	2016/01/29	Epe barruan
ERREA OIARZABAL, AGUSTIN (SABAI ARKITEKTOAK)	447	2016/02/02	Epe barruan
ORMAZABAL AIZPURUA, MIKEL	460	2016/02/02	Epe barruan
ARRUEBARRENA LICEAGA, AMAIA	478	2016/02/03	Epe barruan
IBARGUREN BELOKI, ALAITZ + LUA ARKITEKTOAK	490	2016/02/04	Epe barruan
SOSTOAKO ARKITEKTOAK S.C.P.	509	2016/02/08	Epe barruan
URRUTIA MINGO, JOSU GOTZON	477	2016/02/03	Epez kanpo

5.- A kartazala ireki eta bertan sartu beharreko dokumentuak kalifikatu ondoren, egiaztatu da ondorengo hauek ez dutela hirigintzako post gradu titulua aurkeztu: AITOR JAUREGI LARRAÑAGA, SABAI Arkitektoak (Agustin Errea, kontratua exekutatzeko proposatua), MIKEL ORMAZABAL AIZPURUA eta ALAITZ IBARGUREN BELOKI.

ARKIGESTEK ez du adierazi zein izango den kontratua exekutatzeko arduraduna.

6.- Posta elektronikoaren bidez aukera eman zitzaizkien 2016-02-13rako dokumentazioa osatzeko.

7.- 2016-02-08an ARKIGESTek erantzuna ematen du.

2016-02-09an, Agustin Errea jaunak Euskal Herriko Arkitektoaren Elkargo Ofizialaren txostena bidali du eta 2016-02-16ko, sarrera ematen zaio bidaltzen duen dokumentazioa (egindako lanen zerrenda, arkitektura saria hirigintza modalitatean, hitzaldiak, hirigintza ikastoroko VI moduluan hizlaria, irakats zerbitzuaren agiria eta espediente akademikoa). Aurkezten duen arkitekto tituluari adierazten da espezializazioa, "eraikuntzarena" dela.

2016-02-10ean, Mikel Ormazabal jaunak, hirigintza ikastaroko I. eta II. moduluen eta egun egiten ari den III. Moduluen agiriak aurkezten ditu.

8.- 2016-02-12an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren errekurtsioak sarrera izaten du, adieraziz baldintza pleguan kaudimen profesionala baieztatuzeko eskatzen den hirigintzako post gradu titulua, diskriminatzailea dela.

9.- 2016-02-22. Kontratazio mahaiak, proposatzen dio Gobernu Batzordeari, errekurtsioa ez onartzea eta lizitazioaren prozedura ez etetea.

AITOR JAUREGI LARRAÑAGA, SABAI Arkitektoak, MIKEL ORMAZABAL AIZPURUA eta ALAITZ IBARGUREN BELOKI, lizitaziotik kanpo utzi dira hirigintzako post gradu titulua, ez izateagatik

Gelditzen diren beste zazpi lizitatzailerik deituko zaie 2016-02-25ean, euskarazko frogaren egiteko, baldintza pleguaren arabera.

10.- 2016-02-25ean Gobernu Batzordeak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak aurkeztutako errekurtsioa ez onartzea erabaki zuen.

11.- Euskarazko frogaren ondoren, bi lizitatzailerik ez dute gainditu eta horren ondorioz, 2016-02-29an ondorengo B kartazala ireki da:

LIZITATZAILEAK	KAUDIMEN PROFESIONALA
ARKIGEST ESTUDIOA, S.L.	BAI
OLARTE BIDAURRAZAGA, AITZIBER	BAI
BARANDIARAN CONTRERAS, NIKOLAS	BAI
ARRUEBARRENA LICEAGA, AMAIA	BAI
SOSTOAKO ARKITEKTOAK S.C.P. – IDOIA LETAMENDIA SOROZABAL	BAI

12.- 2016-03-02. Lizitatzailleek aurkeztutako B kartazaleko Memoria aztertu da, baldintza pleguan aurreikusten diren irizpideen ordena jarraituz.

Bisitak egiteko eta azalpen edo informaziorako bileretara joateko disponibilitatea (egutegia): 5 puntu.

ARKIGEST ESTUDIOA, S.L. (Ana Etxeandia): 2 puntu.

Disponibilitatea: ostiral bat hamabost egunero

SOSTOAKO ARKITEKTOAK, S.C.P. (Idoia Letamendia): 0,5 puntu.

Disponibilitatea: bi ordu bi astetik behin.
Arreta telefonikoa astean behin ordu bete.

AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA: 5 puntu.

Prestutasun osoa.

NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS: 5 puntu.

Disponibilitate osoa. Lehenengo bost hilabetetan bi eguneko derrigorrezko presentziaz gain beste egun bat, 8,30etatik 14,30etara.
Formazio ikastaroetara joateko disponibilitatea.

AMAIA ARRUABARRENA LICEAGA: 4 puntu.

Disponibilitatea: bi egun ezberdinetan bi lanaldi erdi edota lanaldi osoa egun batean.

Aldez aurretik hitzaurrea hartu beharra.

Udalak eskatutako informazio edo kontsultei erantzuna emateko denbora, kontuan izanik, kasua bada, udal teknikoek informatzeko eta eskumena duen organoak ebazteko dituen epeak: 15 puntu.

ARKIGEST ESTUDIOA, S.L. (Ana Etxeandia): 7,5 puntu.

Aste beteko epea. Txosten konplexuak direnean gehiago baina ez du definitzen.

SOSTOAKO ARKITEKTOAK, S.C.P. (Idoia Letamendia): 3,5 puntu.

Excell bat egitea eskaeraren erregistroko sarrera data azalduz da eta ebazpena jakinarazteko epea aurreikusiz.

Espediente bakoitzean plantila sortu ebazteko gehienezko epea definituz.

Hainbat txosten egiteko (zerrenda murriztua) beharko duen denbora zehatza adierazi du.

AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA: 5 puntu.

*Hamabost eguneko epea.
Obra txikiak, hamar eguneko epea*

NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS: 10,5 puntu.

Legeak ezartzen duen epeetara doituko dela dio eta hainbat txosten (zerrenda luzea eta zabala) egiteko beharko duen denbora adierazi du. Dagokion izapide administratiboa bermatzeko denbora eta epeetan egitea proposatu du.

Udaletik kanpoko entitateek informatu behar dutenean, jarraipen zehatza egitea arrazoizko epeetan txostenak eman ditzaten

AMAIA ARRUABARRENA LICEAGA: 10 puntu.

Aste beteko epea eta gutxiago izateko aukera udaletxean egon ezker eta beti ere txostenak duen konplikazioaren arabera.

Udal teknikoekin koordinazioa: 15 puntu.

ARKIGEST ESTUDIOA, S.L. (Ana Etxeandia): 5 puntu.

Lan ezberdinen arabera eman beharreko dedikazioa aurreikusi du eta dedikazio horretan udal teknikoekin koordinazioa ere planteatzen du.

Kontsultei erantzuna, telefonoko arreta eginez ere planteatu du.

SOSTOAKO ARKITEKTOAK, S.C.P. (Idoia Letamendia): 5 puntu.

Departamentuaren funtzionamendua ezagutu ondoren, aztertu beharko litzateke koordinazioa nola egin. Eguneroko agenda egitea proposatu du, departamentuan astero barneko bilera eginez.

Astean behin ordu betez, arreta telefonikoa ematea eskaini du.

AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA: 13 puntu.

Prozedura zehatza eta egokia aurkeztu du.

NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS: 13 puntu.

Momentu oro informazioa emango zaie hirigintza arloko arduradun politiko nahiz teknikoari.

Astero bi koordinazio bilera egitea.

Hirigintza batzordea egin aurretik hirigintza arloko arduradun politiko nahiz teknikoarekin eta Idazkariarekin bilera egitea.

Espediente kudeaketa aplikazioa erabiltzea proposatu du, txostenak bertan islatzeko.

Udalaren owncloud sistema edo antzekoa erabiliko da dokumentazioa igotzeko.

“Lan-orria” eratuko da non islatuko diren egindako lanak, bilerak eta kudeaketak.

AMAIA ARRUABARRENA LICEAGA: 4 puntu.

Teknikoekin koordinazioa modu arinean egitea proposatzen du eta astero izan liteke.

Udal zerbitzuek egin beharreko ordenantza urbanistiko berrien justifikazioa edota daudenen hobekuntza: 15 puntu.

Atal honetan baloratu dena da lizitatuzaileek proposatzen dituzten ordenantza berriak edota daudenen hobekuntzak:

- Justifikatuta daudenak.
- Beasaingo udalerrian aplikatzeko interesekoak izan daitezkeenak.

Bi baldintza horiek betetzen dituztenak bakarrik jasotzen dira aktan lizitatuzaile bakoitzeko eta ontzat eman den ordenantza bakoitzari (berria nahiz hobekuntza) puntu bat eman zaio.

ARKIGEST ESTUDIOA, S.L. (Ana Etxeandia): 4 puntu.

<u>Berriak:</u> <ul style="list-style-type: none">• Mejoras ambientales y eficiencia energética.• Energía solar para la producción de agua caliente sanitaria y reutilización de aguas pluviales.	<u>Hobekuntzak:</u> <ul style="list-style-type: none">• Enterado de obra (licencia en lugar visible)• Cambio de uso de terciario a residencial (análisis s/ su mantenimiento)
--	--

SOSTOAKO ARKITEKTOAK, S.C.P. (Idoia Letamendia): 0 puntu.

<u>Berriak:</u> <ul style="list-style-type: none">• Plan General (ez da ordenantza eta ez da baloratu)	<u>Hobekuntzak:</u>
--	---------------------

AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA: 4 puntu.

<u>Berriak:</u> <ul style="list-style-type: none">• Aurretiazko jakinarazpenaren edo aitortpen arduratsuen erregimenaren mende dauden jardueretako	<u>Hobekuntzak:</u> <ul style="list-style-type: none">• Obra txikien lizentziari eta jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko ordenantza (obra txikien kontzeptua zehaztea).
--	--

<p>ondorengo esku hartze, kontrol eta egiaztapenerako udal ordenantza.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Urbanizazio, eraikuntza eta ingurumena, paisaia eta natura babestea arautuko duen ordenantza. • Ur bero sanitarioa sortzeko eguzkia energiari buruz eta euri urak berrerabiltzeari buruzko udal ordenantza. 	
---	--

NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS: 5,4 puntu.

<p><u>Berriak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Eficiencia energética calidad ambiental en los edificios. • Actuaciones de mejora de las condiciones de accesibilidad en edificios residenciales consolidados (posibilidad para expropiar) • Condiciones de solicitud, tramitación y control de licencias urbanísticas. • División de los edificios residenciales preexistentes. • Con 0,4 puntos se valoran dos aspectos recogidos en ordenanza general de urbanización (red de alumbrado público y ordenanzas complementarias de edificación) 	<p><u>Hobekuntzak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Modificación de uso de terciario a residencial en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados de suelo urbano residencial (análisis s/ su mantenimiento)
--	---

AMAIA ARRUABARRENA LICEAGA: 1 puntu.

<p><u>Berriak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • División de fincas y rehabilitación. 	<p><u>Hobekuntzak:</u></p>
---	----------------------------

<p>Horren ondorioz, lizitatzailleek lortutako puntuazioa B kartazaleko Memoria Teknikoan, ondorengo da:</p>	<p>En consecuencia, la puntuación obtenida por los licitadores en la Memoria Técnica del sobre B, es la siguiente:</p>
---	--

LIZITATZAIL EAK	DISPONIBILIT ATEA /EGUTEGIA	ERANTZU NA EMATEK O DENBOR A	KOORDINA ZIOA	ORDENANT ZAK	GUZTI RA
ARKIGEST ESTUDIOA, S.L.	2	7,5	5	2+2 = 4	18,5
OLARTE BIDAURRAZ AGA, AITZIBER	5	5	13	3+1= 4	27
BARANDIAR AN CONTRERAS , NIKOLAS	5	10,5	13	4,4+1 = 5,4	33,9
ARRUEBARR ENA LICEAGA, AMAIA	4	10	4	1+0 = 1	19
SOSTOAKO ARKITEKTOA K.S.C.P. – IDOIA LETAMENDIA SOROZABAL	0,5	3,5	5	0+0 = 0	9

<i>Martxoaren 3an 13,00etan C kartazala ireki da ekintza publikoan, hain zuzen ere, proposamena ekonomikoarena eta emaitza ondorengoa izan da:</i>	<i>El 3 de marzo, a las 13,00 horas se procede a la apertura del sobre C de propuestas económicas, con el siguiente resultado:</i>
--	--

LIZITATZAILEAK	ESKAINTZA EKONOMIKOA 49.800,00+BEZ	PUNTUAZIOA
ARKIGEST ESTUDIOA, S.L.	38.000,00	31,58
SOSTOAKO ARKITEKTOAK S.C.P. – IDOIA LETAMENDIA SOROZABAL	35.000,00	34,29
OLARTE BIDAURRAZAGA, AITZIBER	24.000,00	50
BARANDIARAN CONTRERAS, NIKOLAS	34.362,00	34,92
ARRUEBARRENA LICEAGA, AMAIA	37.500,00	32

Etleipen irizpideen batuketa egin ondoren, emaitza ondorengoa da:

LIZITATZAILEAK	B. KARTAZALA	C. KARTAZALA	GUZTIRA
ARKIGEST ESTUDIOA, S.L.	18,5	31,58	50,08
SOSTOAKO ARKITEKTOAK S.C.P. – IDOIA LETAMENDIA SOROZABAL	9	34,29	43,29
OLARTE BIDAURRAZAGA, AITZIBER	27	50	77
BARANDIARAN CONTRERAS, NIKOLAS	33,9	34,92	68,82
ARRUEBARRENA LICEAGA, AMAIA	19	32	51

Horren ondorioz, Kontratazio Mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Hirigintza arloan asistentzia teknikoa emateko zerbitzua, AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA andreari esleitzeko proposatzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Kontratuaren prezioa, HOGEITA LAU MILA EURO (24.000 €) urteko, BEZ kanpo izango da. Kontratuaren prezioa ez da berrikusiko.

Hirugarren. Egikaritze epea, lau urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita eta ez da luzatzeko aukerarik izango.

Laugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar egun baliodun epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.
- 1.200,00 €ko behin betiko fidantza.

Bosgarren. Alkateari baimena ematea kontratua esleitzeko, aipatutako dokumentazioa jaso ondoren eta aldi berean kontratu administratiboa sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), proposamenarekiko alde azaldu da.

Koldo Agirre jaunak (EH Bildu): “Eraman den prozesuarekin ez gaude ados. Arkitekto lanpostua plantilaren bidez hornitu beharko litzateke. Esleipenarekin ados gaude.”

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

